

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

R4/2017 Ebazpena

10/2015 Espedientea

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 6a

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburu eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekide dituenak, honako hau

ERABAKI DU

Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzaren Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeak igorritako 2014ko otsailaren 11ko idazkiaren bidez –hilaren 19an iritsi zen idazkia– abiarazitako prozeduran; idazki horren bitartez, Arbitraje Batzorde honi jakinarazi zitzaion desadostasuna dagoela Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean MUTUALITATEAK aurkeztutako zerga arloko kontsulta ebazteari dagokionez. Kontsulta Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, espediente-zenbakia 10/2015 du eta Javier Muguruza Arrese jauna da txostengilea.

I.- AURREKARIAK

1. Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

- Arabako Foru Aldundiko (AFA) Tributuen Ikuskapen Zerbitzuak, 2005eko urtarrilaren 26ko idazkiaren bidez, informazioa eskatu zion MUTUALITATEari, 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietan Araban kokatutako lan-zentro bateko langileen lan-etekinengatik pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZ) konturako atxikipenei buruz eta atxikipen horien ordainketa jaso zuen Zerga Administrazioari buruz.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

- Errekerimendu horren ondorioz, MUTUALITATEak kontsulta bat egin zion Zerga Administrazioako Estatu Agentziari (ZAEA), 2005eko otsailaren 28an. Bertan galdetzen zuen nola zehaztu behar zen zer Administraziori ordaindu behar zizkion Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lurralde historikoetan eta Nafarroako Foru Komunitatean lan egiten zuten langileen lan-etekinengatiko PFEZen konturako atxikipenak.
- Ogasuneko Idazkaritza Nagusiko Lurralde Finantzaketako Zuzendaritza Nagusiak erantzun-proposamen bat idatzi zuen, MUTUALITATEak planteatutako galderari erantzuteko. Bertan ondorioztatzen zenez, erakunde autonomoa edo enpresa-erakunde publikoa ez den erakunde publiko bat denez, ulertu behar da Kontzertu Ekonomikoaren 7. artikuluko bigarren atalean sartuta dagoela, bai eta Hitzarmen Ekonomikoaren 10.2 artikuluan ere (Estatuko Administrazioak ordaindutako etekinei buruzkoa da hori), eta ondorioz Araba, Bizkai eta Gipuzkoako bulegoetan lan egiten zuten MUTUALITATEko langileek, bai eta Nafarroako Foru Komunitatekoek ere, irabazitako lan-etekinen PFEZen konturako atxikipenak Estatuko Administrazioari ordaindu behar zaizkio, araudi erkidearen arabera.
- Erantzun-proposamen hori Eusko Jaurlaritzaren Zerga Administrazioari bidali zuen Autonomia Erkidegoen Koordinazio Finantzariako zuzendariak. Zuzendaritza horrek, 2015eko uztailaren 22ko idazkiaren bidez, erantzun zuen, bere ustez, kontsultaren xedea zen gaia lehendik beste ERAKUNDE batek egindakoaren berbera zela. Kasu horretan, erantzuna kontrakoa izan zen, eta Euskadiko Foru Ogasunen esku utzi zen ordainarazpena jasotzeko eskumena, eta Eusko Jaurlaritzaren Tributuen Zuzendaritzak onartu zuen. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Tributuen Zuzendaritzak ulertu zuen MUTUALITATEAK eginiko kontsultari emandako erantzunean esan behar zela MUTUALITATEaren Arabako bulegoetako langileei ordaindutako lan-etekinei zegozkien atxikipenak Arabako Foru Aldundiari ordaindu behar zitzaizkiola, aldundi hori baitzegokion lan-zentro horri, Kontzertu

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Ekonomikoaren 7.Bat a) artikuluan ezartzen den irizpide orokorraren arabera. Izan ere, artikuluko horren bigarren atalean jasotzen da arau horren salbuespena, eta Estatuko Administrazioak ordaindutako lan-etekinei egiten die erreferentzia, ez horren mendeko organismo autonomoek ordaindutakoei.

2. Arbitraje Batzordeak gatazka izapidetzeko onartu zuen 2015eko abenduaren 2ko bileran.

3. 2015eko abenduaren 4an, Arbitraje Batzordeko presidentek idazkiak bidali zizkien Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioaren Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari, Eusko Jaurlaritzaren Ogasuneko eta Finantza Politikako sailburuordeari, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Euskadiko Ordezkaritzari. Bertan, gatazkaren onarpena jakinarazten zien, Arbitraje Batzordearen Araudiaren 16. artikuluko 4. atalean ezarritakoaren arabera, Administrazio interesdunek egokitzen jotako alegazioak aurkezteko, hilabeteko epean. Eskaintza bera egin zitzaion MUTUALITATEari Arbitraje Batzordeko presidentek 2015eko abenduaren 17an igorritako idazki bidez.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) alegazioak aurkeztu zituen 2016ko urtarrilaren 14ko idazki baten bidez (egun horretan bertan erregistratu zen). Bertan, Eusko Jaurlaritzaren Zerga Administrazioko Zuzendaritzak defendatutako tesia berresten da, eta eskatzen da gatazka ebazterakoan «ezar dadila MUTUALITATEak funtzionario eta enplegatuek zerbitzuak ematen dituzten lekuaren arabera egin behar dituela lan-etekinen atxikipenen ordainketak, Kontzertu Ekonomikoaren 7. artikuluko Bat. a) atalean eta Bi atalaren bigarren lerrokadan xedatutakoaren arabera. Izan ere, Estatuaren Administrazio Instituzionalaren Erakunde batez ari gara, eta hori ez da Estatuaren baliokidea. Erakunde autonomoen oso antzeko araubide juridikoa

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

du, ia berdina (desberdintasun bakarra du horien aldean: independentzia eta autonomia funtzional handiagoa du)».

BFaren ustez, Kontzertu Ekonomikoan ez zaio Estatuko Administrazioari esleitzen Administrazio horren funtzionario eta langile guztien ordainsariei dagozkien atxikipenak ordainarazteko eskumena (erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako langileenak izan ezik), baizik eta eskumen hori esleitzen zaio soilik «Estatuaren» funtzionario eta langileen ordainsarien kasuan, zorrotz hartuta.

Tesi horren alde, adierazten du Kontzertu Ekonomikoaren 7. artikulua egungo idazkera indarrean jarri aurretik, Estatuaren Administrazioak eskatzen zituela bai Euskadin lan egiten zuten Estatuko funtzionario eta enplegatuei zegozkien atxikipenak nola «estatuaren erakundeen eta estatuaren erakunde autonomoen» funtzionario eta enplegatuei zegozkienak. Hortik ondorioztatzen denez, BFaren iritziz, Kontzertu Ekonomikoak ez zituen Estatuaren parte bezala sailkatzen horren Administrazio Instituzionala osatzen duten erakundeak, nahiz eta orduan Estatuaren Administrazioari onartzen zion batek (Estatuak) zein besteak (Administrazio Instituzionalak) egindako atxikipenak ordainarazteko eskumena.

BFaren ustez, Kontzertuaren 7. artikulua egungo idazketa onartu zen unean –maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartu zen–, Estatuaren Administrazio Instituzionala osatzen zuten garai hartako erakunde publikoen kategoria orokorrak Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legearen 43. artikuluan jasotakoak dira; orduan, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak baino ez ziren aipatzen. Horregatik, 7.Bi artikuluan erakundeen kategoria horiek soilik aipatu ziren euren funtzionario eta langileen atxikipenak lan egiten duten tokiaren irizpide orokorraren arabera jaso behar dituzten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

erakundeak zeintzuk diren zehazteko; izan ere, nortasun juridiko propioa eta autonomia edo independentzia funtzionala duten erakundeak dira.

BFAk bere jarrera defendatzeko dioenez, oro har, administrazio-araudian «Estatua» esapidea ez da erabiltzen bere Administrazio Institutuzionala barnean hartzen duela, baizik eta beti bereizten dira biak. Eta horretarako, beste batzuen artean, honako hauek aipatzen ditu: 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarena eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, horren 2. artikuluan bereizten dira, alde batetik, Estatuaren Administrazioa (Lurralde Administrazio bezala) eta horri lotutako edo horren mendeko zuzenbide publikoko erakundeak, nortasun juridiko propioa dutenak (Administrazio Institutuzional bezala); 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, desberdintasun bera egiten duena; Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 3. artikuluan, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia; 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren Erreformari buruzkoa (1. artikulua); eta 47/2003 Lege orokorra, azaroaren 26koa, Aurrekontuena (2. eta 3. artikulua); eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea (LOFAGE).

BFAren ustez, antzeko izaera duena ezin da beste modu batean tratatu, betiere esanbidez horrela araututa ez badago edo hori egitea justifikatzen duen arrazoi sendorik ez badago. Eta, hala, funtsean erakunde autonomoen edo enpresa-erakunde publikoen antzeko erakundeez ari bagara (eta ez Estatuko Administrazio Orokorraren antzekoez), batzuei eta besteei eman beharreko tratamenduak berdina izan beharko du.

<i>Espediente</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Haren ustez, interpretazio hori berretsita dago Kontzertuaren 7.Bi artikulua bigarren lerrokan xedatutakoaren arabera; izan ere, arau bereziaren salbuespen bat baino gehiago, arauaren azalpen bat ematen du zera dioenean, arau berezi hori ez zaiela aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei (hortaz, kategoria orokortzat hartuta, Estatuaren Administrazio Instituzional osoa biltzen dutenak). BFAk uste du ez lukeela zentzurik izango erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioak eta langileak arau berezi horretatik salbuesteak, nortasun juridiko propioa dutelako (alegia, Estatuarena ez dena), baldin eta ez bada gauza berdina egiten beste erakunde publiko batzuetako langileen kasuan, betiere erakunde horiek ere nortasun juridiko propioa badute eta haiek baino autonomia funtzional eta kudeaketa-autonomia handiagoa badute. Bestela, BFAk dioenez, Estatuak Kontzertuaren 7.Bi artikulua bigarren lerrokada edukiz hustu ahal izango luke bere kabuz, erakundeei erakunde autonomoena eta enpresa-erakunde publikoena ez den forma juridikoa esleitzeko mekanismo hutsaren bitartez.

5. Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak alegazioak aurkeztu zituen 2016ko urtarrilaren 14ko data duen idazki bidez; sarrera-erregistroa ere egun berean egin zen.

Idazki horretan, kontsultaren ebazpen-proposamena berresten du eta proposamenean emandako argudioak errepikatzen ditu; horrela, bada, Eusko Jaurlaritzaren Zerga Administrazio Zuzendaritzak eginiko oharrekin ados ez dagoela adierazten du eta labur-labur azalduko ditugun argudioak ematen ditu horretarako.

Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren ustez, erakunde publikoek ordaintzen dituzten lan-etekinen kasuan, Kontzertuan arau berezia xedatzen da eta arau horren bitartez, lotura-puntua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

izateaz gain, subjektu ordaintzailearen atxikipenak ordainarazteko eskumena esleitzen da. Funtzionario eta langileei emandako ordainsariak ordaintzen dituen Administrazioak (Estatuak edo Foru Ogasunak) atxikipenak ordainarazten ditu, eta arau horren salbuespen bakarra Kontzertuaren 7.2 artikuluan jasotako araua da, erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publikoentzako aurreikusten dena, zerbitzua emateko tokiaren irizpidea aplikatzen baitzaie haiei.

MUTUALITATEAri Kontzertu Ekonomikoaren 7.2 artikuluan araututako salbuespen hori aplikatu behar zaion aztertzeko, beharrezkoa da erakunde horren nortasuna zehaztea, haren araudi erregulatzaileren arabera. Adierazten duenez, araudi horren parte da, alde batetik, 1320/2004 Errege Dekretua, maiatzaren 28koa, Administrazio Publikoen Ministerioko oinarritzko egitura organikoa garatzen duena, eta horrek ez du MUTUALITATEA erakunde autonomo bezala sailkatzen; aitzitik, honako hau xedatzen du 8.5 artikuluan: «Administrazio Publikoen Ministerioari esleitzen zaio MUTUALITATEA, Administrazio Publikoaren Idazkaritza Nagusiaren bidez, berriazko araudian aurreikusten diren egitura eta funtzioekin».

Eta bestetik, Estatuaren Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bategina, ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretua. Horren 5. artikulua honako hau xedatzen du: MUTUALITATEA «erakunde publiko bat da eta nortasun juridiko publiko berezia du, bai eta ondare eta diruzaintza propioak eta kudeaketa-autonomia ere, eta Estatu Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legean jasota dauden erakunde autonomoei buruzko xedapenen bidez arautuko da, ondoko 2. atalean xedatutakoaren salbuespenarekin». Eta 2. atal horretan honako hau xedatzen da: «2. Araubide ekonomiko-finantzarioa, ondarearena, aurrekontuena, kontabilitatekoa eta prestazioen esku-hartze eta kontrolekoa, bai eta osasungintza eta farmaziako

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

laguntza-zerbitzuak emateko hitzarmenen araubidea ere, honako lege hauetan ezarritakoa izango da: Lege hau eta hori garatzeko arauak; Aurrekontuen Lege Orokorra, aplikatzekoa den alderdietan, eta, horren orde, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea».

Zentzu berean Mutualismo Administratiboaren Araudi Orokorra aipatzen da (aipatutako 4/2000 Legea garatu zuen martxoaren 28ko 375/2003 Errege Dekretuak onetsi zuen hori).

Horien edukiaren arabera, Idazkaritza Nagusiaren ustez, MUTUALITATEA erakunde publiko bat da, eta erakunde autonomoen «zenbait» arau aplikatzen zaizkio, baina ez guztiak, eta ez da erakunde autonomotzat jotzen.

Dioenez, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean «erakunde publikoak» izen generikoa erabiltzen da; izen horrek Estatuko Administrazio Orokorraren mendeko edo harekin lotutako Zuzenbide publikoko erakunde guztiak biltzen ditu, eta, nahiz eta 43. artikuluan erakunde autonomoetan eta enpresa-erakunde publikoetan sailkatu, seigarrenetik hamargarrenera bitarteko xedapen gehigarrietan aurreikusen du, halaber, erakunde autonomo edo enpresa-erakunde publiko ez diren erakunde publiko batzuk ere existitzea. Horiek beren berariazko araudiaren arabera arautzen dira, eta LOFAGEren arauak aplikatzen zaizkie beren berariazko araudian aurreikusita ez dauden alderdietan bakarrik, modu osagarrian.

Horren arabera, Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak uste du ezin dela ulertu erakunde publiko guztiak LOFAGEren kategoria generikoetan sailkatu behar direnik, horrek erakundeen hirugarren talde bat badagoela onartzen baitu. Horiek beren arau instituzionaletan ezarritakoaren arabera arautuko dira,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

eta modu osagarri eta partzialean aplika dakizkieke erakunde autonomoei buruzko xedapenak. Eta, haren iritziz, kategoria horretakoa da MUTUALITATEA, LOFAGEren hamargarren xedapen gehigarrian espresuki aipatzen ez bada ere.

Adierazten du, gainera, irizpide hori erabili duela Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren Arbitraje Batzordeak 14/2007 gatazkaren ebazpenean. Bertan ebatzi zuenez, MUTUALITATEA «Estatuaren Administraziozat» jo behar zen funtzionario eta enplegatuei ordaindutako ordainsariei dagozkien atxikipenen ordainarazpenaren eskumena zer Administrazioek duen erabakitzeko.

6.- Arabako Foru Aldundiak alegazioak aurkeztu zituen 2015eko abenduaren 28ko idazki baten bitartez (hilaren 30ean erregistratu zen); idazki horretan, EZKOaren txosteneko argudioak berretsi zituen. Gipuzkoako Foru Aldundiak ere antzeko jarrera adierazi zuen 2016ko urtarrilaren 11ko idazki batean; hilaren 12an erregistratu zen idazkia Arbitraje Batzordean.

7.- MUTUALITATEAK alegazioak aurkeztu zituen, 2016ko urtarrilaren 16ko idazki baten bitartez, eta 2016ko urtarrilaren 20an sartu zen Arbitraje Batzordean. Idatzi horretan Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiaren tesia defendatzen da eta Nafarroako Arbitraje Batzordearen doktrina aipatzen da, era berean.

6. Prozedura abenduaren 28ko 1760/2007 Dekretuak onartutako Arbitraje Batzordearen Araudian eta, zehazki, haren 14. artikulua preskripzioetan xedatutakoaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau sustatu da Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordean sortu den desadostasun batengatik, Kontzertu Ekonomikoaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

64.b) artikuluan aurreikusitako kontsultak ebazteko adiskidetasunezko prozeduraren barruan. Desadostasuna erantzun bati buruzkoa da; hain zuzen ere, MUTUALITATEAK Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Zergen Zuzendaritza Nagusian aurkeztutako kontsultari emandako erantzunari buruzkoa, eta kontsultaren bitartez, Arabako, Bizkaiko eta Arabako lurraldeetan diharduten langileei lan-etekinengatik egindako atxikipenei dagozkien aitortpenak eta diru-sarrerak zer Zerga Administraziotan aurkeztu behar zituen jakin nahi zuen: ZAEAn edo zegokion Foru Aldundian.

2. Arbitraje Batzorde honek MUTUALITATEAK egindako kontsultaren ondorioz Kontzertu Ekonomikoaren Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordearen barnean sortutako gatazka konpontzeko eskumena du; izan ere, 2014ko maiatzaren 13an izan genuen gatazka horren berri, idazki bitartez.

3. Kontzertu Ekonomikoaren 7.Bat artikulua honako hau xedatzen du, laneko etekinak direla-eta egindako atxikipenak ordainarazteari dagokionez:

«Bat. Lanaren etekinen ziozko atxikipenak eta konturako sarrerak, honako kasu hauetan, lurraldea dela-eta eskumena daukan foru-aldundiak eskatuko ditu, bere arautegiari eutsiz:

a) Euskadin egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edota zerbitzuak lurralde erkidean eta Euskadiko lurraldean egiten direnean, arauak edo zerbitzuak Euskadin egiten direla uste izango da, aurkako frogarik ezean, baldin eta langilearen lantokia lurralde horretan badago.

b) Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboen araubide publikoetatik hartzen diren pentsioen, hartzeko pasiboen eta prestazioen etekinak, Enpleguaren Nazio Erakundetik, montepio eta mutualitateetatik, enplegua sustatzeko fondoetatik, pentsio planetatik eta borondatezko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

gizarte aurreikuspeneko erakundeetatik datozenak, eta enpresen eta beste erakunde batzuen prestazio pasiboak, baldin eta hartzailearen ohiko bizilekua Euskadin badago. (...)»

Eta, 7. artikuluko horretan bertan, Bi zenbakian honako hau xedatzen da:

"Bi. Aurreko paragrafoan xedatutakoa hala izan arren, Estatuko Administrazioari dagozkio Estatuak bere funtzionarioei eta lan-kontratuz eta administrazio-kontratuz dituen enplegatuei emandako ordainsari aktiboei eta pasiboei buruzko atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Aurreko paragrafoan xedatu dena ez zaie aplikatuko erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioei eta langileei».

4. Horren arabera, Kontzertu Ekonomikoan, funtzionario eta enplegatu publikoen ordainsarien konturako atxikipen eta diru-sarrerei aplikatzen zaien arau orokorra lotura-puntuaren aplikazioa da: lanpostuaren edo pentsiodunaren bizilekuaren kokapena, zehazkiago.

Arau orokor horren aurrean, salbuespen bakar bat ezartzen da.

Estatuaren Administrazioak ordaindu eta Estatuen Administrazioari berari egozten zaizkion ordainsari aktibo zein pasiboen atxikipenei baino ez die eragiten.

Salbuespena guztiz mugatua da, eta aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu espresuki Estatuaren erakunde autonomoetako eta enpresa-erakunde publikoetako funtzionarioak eta enplegatuak, horiek ere arau orokorrera bideratuz.

<i>Espediente</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Kontzertuak ez du aurreikusten Euskadiri esleitzerik Euskadiko administrazioak berak bere funtzionario eta enplegatu publikoei ordaindutako ordainsariek atxikipenak eta konturako diru-sarrerak.

5.- Duela gutxi indargabetu zen Estatuko Administrazio Orokorren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legea (LOFAGE) indarrean zegoen Kontzertu Ekonomikoa idatzi zenean eta horri geroago hizpide izango dugun hamargarren xedapen iragankorra gehitu zitzaionean. Honako hau dio lege horrek zioen azalpenean: «Atzeraezina da tradizionalki “Estatuaren Erakunde Administrazioa” deitu izan zaion horri buruzko araudia arrazionalizatzea eta eguneratzea. Lehenik, izen generiko bat aukeratu da, “erakunde publikoak”; izen horrek Estatuko Administrazio Orokorren mendeko edo harekin lotutako Zuzenbide Publikoko erakunde guztiak biltzen ditu. Kontzeptu orokorrean oinarrituta, oinarritzko bi eredu bereizi dira gero: Erakunde autonomoak eta Enpresa-erakunde publikoak. Lehenengoek funtsean administrazio-jarduerak egiten dituzte eta Zuzenbide publikoari atxikita daude, erabat; bigarrenek, aldiz, zerbitzuak emateko edo kontraprestazio ekonomikoa izan dezaketen ondasunak ekoizteko jarduerak egiten dituzte, eta, oro har, Zuzenbide pribatuaren arabera arautzen diren arren, Zuzenbide publikoaren araubidea aplikatu dakieke ahal publikoak baliatzeari eta funtzionamenduekin lotutako zenbait alderdiri dagokienez.»

Asmoen adierazpen horren ondoren, erakunde publikoak honela definitzen ditu:

41. artikulua. Erakunde publikoei dagozkien jarduerak

«Erakunde publikoak dira Estatuko Administrazio Orokorren menpe edo hari lotuta sortutakoak, 2. artikularen 3. zenbakian aurreikusitako edozer jarduera gauzatzeko, betiere, horren ezaugarriek euren

<i>Espediente</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

antolakuntza eta garapena deszentralizazio funtzionaleko erregimenean justifikatzen dutenean.»

Eta, 43. artikuluan, jatorrizko idazketan, honako hau xedatzen zen:

«43. artikulua. Erakunde publikoen sailkapena eta atxikipena

1. Honela sailkatzen dira erakunde publikoak:

a) Erakunde autonomoak.

b) Enpresa-erakunde publikoak.»

4.- Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean egun indarrean dagoen Kontzertu Ekonomikoa maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartu zenean, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea indarrean zegoen.

Itunaren 7. artikuluko Bi zenbakiaren idazketa ezin da ulertu Zioen Azalpenaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearen 43. artikuluen testuingurutik kanpo.

Esan den moduan, bigarren atal horrek, hasieran, Estatuko Administrazioarentzat salbuespenezko araua ezartzen da honako arau honi dagokionez: lan-etekinengatiko atxikipenak lana egiten den tokiko Administrazioari esleitzeko arauari dagokionez. Xedatzen denari jarraikiz, Administrazio horrek ordaindutako ordainsariei dagozkien atxikipenak, lana egiten den tokiko Administrazioari beharrez, Administrazio horri berari dagozkio, nolana ere.

Eta, jarraian, salbuespenaren salbuespen bat egiten du manuak. Horren bitartez, ondorio horietarako «Estatuko Administrazio»tzat hartu behar den

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

eremua zehazten du, betiere «Estatuaren administrazioa instituzionala» esaten zaion hori haren eremutik salbuesteko.

Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea indarrean zegoela, Kontzertu Ekonomikoa idazteko garaian «Administrazio Instituzionala» «Estatuko Administrazioa» kontzeptutik at uzteko modu logikoa zera zen, oinarrizko bi kategoriak esanbidez eta zehazki aipatzea, lehenik, Zioen Azalpenean eta, gero, 43. artikuluan; bi aipamen horiekin, «tradizionalki Estatuaren Administrazio Instituzionala deitu izan zaiona» — Zioen Azalpena parafraseatuz— bereizten zen. Alegia, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak esanbidez aipatuta.

Eta logikoa zen hain justu horrela egitea, orduan, zeren Kontzertu Ekonomikoaren 2002ko idazketa berriarekin 1981eko Kontzertu Ekonomiko zaharrean indarrean egondako eskumenak banatzeko irizpidea aldatzen ari baitzen, Estatuko Administrazioak ordaintzen zituen lan-etekinengatiko atxikipenen gaineko eskumenei zegokienez.

Izan ere, maiatzaren 13ko 12/1981 Legearen bidez onartutako Itunaren 10. artikuluko Bat zenbakiaren Bigarren lerrokadan «Estatuko Administrazio»ari esleitzen zitzaizkion, eskumen eskusibo moduan, Estatuak Euskadin dituen funtzionario eta enplegatuek jasotako ordainsariei –aktibo nahiz pasibo– dagozkien atxikipen guztiak.

1981eko testuan ez zen salbuespenik aurreikusten Administrazio instituzionalarentzat.

Eta testuinguru historiko horretan interpretatu behar da 2002ko Kontzertuaren 7. artikulua Bi zenbakiko bigarren lerrokada.

Esanguratsua da 2006. urtean, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearen 43. artikulua

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

idazketa Zerbitzu Publikoak Hobetzeko Estatu Agentziei buruzko Legearen (uztailaren 18ko 28/2006) azken xedapenetatik lehenaren bitartez aldatu zenean eta erakunde publikoen zerrenda handitu zenean –erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publikoei “estatu-agentziak” gehitu zitzaizkien–, Kontzertu Ekonomikoaren testua egokitu egin zela, hain justu, eskumenen banaketan oreka ziurtatzeko, 12/2002 Legea onartu zenean ezarritako sektore publikoaren atxikipenei dagokienez.

Horretarako, urriaren 25eko 28/2007 Legearen bitartez Kontzertu Ekonomikoan egindako erreforman hamargarren xedapen iragankorra txertatu zen; xedapen horren arabera, Estatuko Agentziei buruzko Lege berriaren babespean, erakunde autonomoren bat edo enpresa-erakunde publikoren bat agentzia bihurtuz gero, haren atxikipenak ordainarazteko eskumena erakunde autonomoentzat eta enpresa-erakunde publikoentzat berariaz aurreikusitakoa izango da.

Kontzertuaren legegileak arduraz jokatu zuen, testua LOFAGEren aldaketei egokitua gera zedin.

6.- Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Kontzertu Ekonomikoa adostutako testua da eta artikuluko bakarreko lege batean antolatzen da. Kontzertu Ekonomikoa erabaki bidez soilik alda daiteke; praktikan, erabaki horrek ahobatezkoa izan behar du, nahitaez, eta Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoak hartu behar du. Batzorde horretan, Estatuak eta Euskal Autonomia Erkidegoak ordezkari kopuru bera dute.

Kontzertu Ekonomikoa adostua izaki, edukia adostu duten bi aldeetako bakar baten ekimenez erabakien ondoriozko oreka urratzeko aukera ematen duen manuen interpretazio oro baztertu egin behar da.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Horrekin batera, egia da, halaber, Kontzertu Ekonomikoa adostek ezin duela mugatu, ez urritu ere, inplikaturako Administrazioen autoantolaketarako ahalmena.

Hori horrela dela, erakunde autonomo edo enpresa-erakunde publiko ez diren erakunde publikoak manten edo era ditzake, zalantzarik gabe, Estatuko Administrazioak bere kabuz, edo beste kategoria batean sailka ditzake horietako batzuk, autoantolaketarako bere ahalmena baliatuta, baina Kontzertu Ekonomikoaren esparruan, ituna den aldetik, erabaki horrek ezin du eragin lan-ete kinengatiko atxikipenak ordainarazteko eskumena duen Administrazioa aldatzeko erabakia ere hartzea bere kabuz.

7.- Kontzertu Ekonomikoaren bigarren xedapen gehigarriak agintzen duenez, testu horretan aldaketaren bat egin behar bada, Kontzertua bera onartzeko erabilitako bideari jarraitu beharko zaio.

Horren arabera, Kontzertu Ekonomikoaren 7. artikulua interpretazioen batek ondorio jakin bat aterarazten badu, interpretazio hori baztertu egin behar da; hona hemen ondorio hori: Estatuko Administrazioak Biznabakiko bigarren lerrokada edukiz hustu dezakeela bere kabuz, Euskal Autonomia Erkidegoan presentzia duten erakundeei erakunde autonomoen eta enpresa-erakunde publikoen forma juridikoarekin bat ez datorren forma juridikoa edo beste izen bat emate hutsagatik, nahiz eta manu horretan esanbidez aipaturako erakundeek baino autonomia eta independentzia funtzional handiagoa duten erakundeak izan.

Arbitraje Batzorde honek termino horietan eman zuen uztailearen 28ko 15/2016 ebazpena, 24/2014 gatazkari buruzkoa. Haren gaia zen zer administrazioek zuen eskumena erakunde autonomo izan ondoren erakunde autonomoak ez bezalako zuzenbide publikoko erakunde bilakatu zen estatuaren erakunde batek Euskadin zituen langileen atxikipenak eskatzeko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Ohar hori ere agerian geratu zen, Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren inguruan, testu horretan aurreikusitako Arbitraje Batzordearen 2008ko abenduaren 16ko ebazpenean. Horretan, hizpide dugun gatazka bera ebazten zen. Egia da ebazpen hartako ondorioa hemen eman dugunaren kontrakoa izan zela. Baina nabarmendu behar da Euskadiko Kontzertu Ekonomikoak eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoak alde handia dutela sektore publikoak ordaindutako ordainsarien PFEZen konturako atxikipenak ordainarazteko eskumena zehazteko arau orokorrari dagokionez.

Kontzertu Ekonomikoak ez bezala, Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoak ezartzen du funtzionario eta langileen lan-etekinen gaineko atxikipenak, hala Estatuko Administrazioarenak nola Foru Komunitatearenak, ordaintzaileak berak eskatzen dituela, bere araudi propioari jarraikiz. Eta salbuespen bakarra ezartzen du Estatuaren erakunde autonomo eta enpresa-erakunde publikoentzat bakarrik: horiek atxikipenak Nafarroari esleituko zaizkio ordainsari bakoitzarentzako aurreikusitako lotura-puntuak aplikatzean egokia denean. Xehetasun hori esanguratsua da, ebazpen horrek ordaintzailearen eskumenaren esleipenaren arau orokorra nabarmentzen baitzuen bere ondorioetako argumentuetan.

8.- Gure ondorioaren aurrean ezin da argudiatu Kontzertu Ekonomikoa onartu zenean Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean –seigarren xedapen gehigarritik hamargarrenera bitarte– jada onartzen zela erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak ez diren erakunde publikoak existitzen direla, eta erakunde horiek ere ez zirela sartu 7. artikuluko Bi zenbakiaren bigarren lerrokadako zerrendan, Estatuko Administrazioaren atxikipenak ordainarazteko arau bereziaren salbuespen gisa.

MUTUALITATEa existitzen zen LOFAGE indarrean jarri zenean, eta ez da aipatzen seigarrenetik hamargarrenera bitarteko xedapen gehigarrietan.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Ekainaren 23ko 4/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Estatuko Funtzionario Zibilen Gizarte Segurantzari buruzko Legearen testu bateginaren 5.1 artikulua espresuki adierazten du MUTUALITATEA «apirilaren 14ko 6/1997 Legean (LOFAGE) jasotako xedapenen arabera arautuko dela», manu beraren 2. atalean zehazkiago zerrendatzen diren gai jakin batzuetan izan ezik. Horien artean ez da aipatzen enplegatuen ordainsarien atxikipenak ordainarazteko eskumena.

Herri Administrazioen Erreformatarako Batzordea 2012. urtean sortu zen, besteak beste administrazio-erakundeak aztertzeko eta haien kopuruari eta konfigurazio juridikoari buruzko aldaketak proposatzeko; horrela, bada, batzorde horrek egindako txostenaren ondorioak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legean gauzatu ziren, eta, Zioen Azalpenean dioenez, egia da «itxurazko esparru orokorra (Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legearena) zalantzan jartzen dela legearen hamargarren xedapen gehigarrian xedatutako aurreikuspenarekin. Izan ere, xedapen gehigarri horren bitartez, erakunde jakin batzuk legearen aplikaziotik salbuetsita geratzen dira; egun 15 erakunde dira, eta, lege-aurreikuspen propioak dituztenez, Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea ordezkotza baino ez zaie aplikatzen. Hona hemen erakunde horiek: Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, Segurtasun Nuklearreko Kontseilua, RTVE Korporazioa, transferitu gabeko Unibertsitateak, Datuak Babesteko Bulegoa, Kanarietako Eremu Bereziko Partzuergoa, Energiaren Batzorde Nazionala, Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordea, Lehiaren Batzorde Nazionala, Posta Sektorearen Batzorde Nazionala, Ikus-entzunezkoen Estatuko Kontseilua, Jokoaren Batzorde Nazionala, Aireportuen Arautze Ekonomikorako Batzordea, Prado Museo Nazionala eta Reina Sofía Arte Zentroa Museo Nazionala.»

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Esparru orokorretik salbuetsita dauden erakunde gehienak oso bereziak dira, eta horregatik izan dute banakako tratamendua Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legean, eta horregatik gehien-gehienak ez daude ezarrita Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean. Hain bereziak izaki, ondorio hau atera dezakegu: salbuespen horrek ezin du justifikatu Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak egin nahi duen interpretazioa, zeren Kontzertu Ekonomikoaren 7. artikuluko Bi zenbakiaren bigarren lerroak ezin baitu izan beste xederik, Erakunde Administrazioa osatzen duten erakunde publiko guztiek ordaintzen dituzten lan-etekinengatiko atxikipenak zerbitzuak ematen diren tokiaren lotura-puntuarekin lotzea ez bada.

Konzertu Ekonomikoaren 7. artikuluko 2. zenbakiko bigarren lerroak interpretatzeko zailtasunaren jatorria, azken ginean, tradizionalki «Estatuaren Administrazio Instituzionala» deitu izan dena definitzeko legegintzako teknika bitxia da. Ondorioz, Estatuak baino ez dezake zailtasun hori konpondu, eta ez Euskadiko Autonomia Erkidegoak. Inguruabar horrek Kode Zibilaren 1.288. artikulua aipatzera garamatza. Horren arabera, kontratu bateko interpretazio zaileko klausulen interpretazioa ez litzateke egin behar zailtasun hori eragin duen alderdiari onurak ekartzeko moduan.

9. Azkenik, ezin dugu aipatu gabe utzi lege-arloko bilakaeraren azken gertakari garrantzitsua, gure ustez berretsi egiten baitu honako argudio hau: Administrazio Instituzionala osatzen duten erakundeen arau-ezaugarrien etengabeko bilakaerak eragotzi egiten duela hainbeste aldiz errepikatu dugun Kontzertuaren 7. artikuluko Bi zenbakiko bigarren lerroakaren hitzez hitzeko interpretazio ez-finalista egitea.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015) onartu denez, Estatuko sektore publikoaren beste sailkapen bat finkatu da lege hori indarrean jarri zenez geroztik sortuko diren erakundeentzat.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

84.1 artikuluan agertzen da sailkapen berri hori. Kategoria guzti-guztiak zehazteko asmoz egin da oraingoan ere, eta asmo hori argi ikusten da, manuairen 2. zenbakian esanbidez debekatu ere egiten baita 1. zenbakian zerrendatutakoekin bat ez datozen erakunde motak sortzea.

Horren arabera, Estatuko erakundeen sektore publikoan sartzen dira honako erakunde hauek: erakunde publikoak, hau da, erakunde autonomoak eta enpresa-erakunde publikoak; administrazioako agintaritza independenteak, Estatuko merkataritza-sozietateak, partzuergoak, sektore publikoko fundazioak, nortasun juridikorik gabeko funtsak eta transferitu gabeko unibertsitate publikoak.

Laugarren xedapen gehigarrian modu eztaba daezinean adierazten da indarrean jartzen denean Estatuko sektore publikoa osatzen duten erakunde eta organismo publiko guztiak bere edukira egokitu beharko dutela hiru urteko epean.

Horretaz gain, 40/2015 Legearen bitartez Estatuko Administrazio Orokorraren Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Legea indargabetzen da espresuki.

Gauzak horrela, arau hau indarrean delarik, are arrazoi gehiagorekin, Kontzertuaren 7. artikuluko 2. zenbakiaren exegesi egokia egiteko, idazteko uneko testuinguru historikoari eta teleologiari erreparatu beharko zaie, harik eta alde biek espresuki lege-testu berriari egokitzeko aldaketak egiten dituzten arte. Moldaketa hori, Arbitraje Batzorde honen iritziz, beharrezkoa da argi eta garbi, idazketa Estatuaren antolaketako araudi berriari egokitzeko eta horrela ebazpen honen xede den gatazka eta 24/2014 gatazkari buruzko uztailaren 28ko 15/2016 Ebazpena eragin zuen gatazka bezalako desadostasunen ugaritzea saihesteko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2015	R4/2017	2017-02-06	<i>Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordea</i>	<i>Estatuko administrazioa</i>	<i>Laneko atxikipenak - lantokiaren tokia zehaztea</i>

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKI DU

1.- Adieraztea MUTUALITATEAK bere langileei Euskal Autonomia Erkidegoan egindako lanengatik ordaindutako lan-etekinei aplikatu beharreko atxikipenak ordainarazteko eskumena foru-aldundiei dagokiela, betiere zerbitzuak ematen diren lurraldearen arabera kasuan kasu eskuduna den Foru Ogasuna izanik eskumen hori duena.

2.- Jarduketak amaitutzat jotzea eta artxibatzea.

3.- Erabaki hau honako hauei jakinaraztea: Ekonomia Itunaren Koordinaziorako eta Arauen Ebaluaziorako Batzordeari, prozedura honetan parte hartu duten Administrazioei, hau da, Ogasunaren eta Administrazio Publikoen Ministerioko Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiari eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako foru-aldundiei, eta MUTUALITATEAri.